

Gomendatutako liburua:

-Herbert, Robert. "El Impresionismo: arte, ocio y sociedad". Alianza Forma. Madrid. 1989.

IMPRESIONISMOA

Impresionismoa Normandian jaio zen, Honfleur eskolarekin batera, Saint-Siméon ere deitua. 1858. etik aurrera, Eugéne Boudin-ek (1824-1898), Manet-ek eta Courbet-ek El Havren, geroxeago Jongkind-ekin, fadura-pinturak landu zituzten, atmosferari argiari baino garrantzia gehiago emanez. Probertzan ere beste eskola bat jaio zen, non Bazillek eta Guigouk kanpoko eszenak pintatu zituzten, argiari benetako garrantzia eman nahirik.

Bi eskola horiek impresionismoaren etorrera prestatu zuten. Impresionismoaren lehen urratsak Suitzako Akademian eman ziren (Pissarro, Cézanne eta Guillaumin), gero Gleyre-ren estudioan (Bazille, Monet, Renoir eta Sisley) eta Guerbois kafetegian. 1863. tik aurrera, mugimenduaren buruzagia Manet zela, Errefusiatuen Aretoak eratu zituzten eta, bidenabar, impresionismoa indarra hasi zen hartzen.

Impresionisten hiriburua Paris zen. Mugimendu hori 1863an hasi zela esan daiteke Edouard Manet-en "Belarretan bazkaltzen" koadroa Pariseko Areto Nazionalan aurkeztu zuenean. Epai-mahaikoek Manet-en pintura hura atzera bota zuten beste batzuren artean. Pintoreen protesten aurrean Napoleon III.ak "Errefusiatuen Aretoa" antolatzeke baimena eman zien. "Belarretan bazkaltzen" koadroa Giorgione-ren gai batean eta Rafael-en konposizioetan oinarritzen zen, dena dela Manet-ek adierazitako kontzeptu piktorikoak guztiz desberdinak ziren: jantziak, apaindurak, kolore askeagoak, pintzelada zatitua, hitz batez, arte ofizialak ez zuen inola ere koadro hau onesten.

Manet hemendik aurrera Akademiak agindutako pintura egiten ez zuten artista gazteen sinbolo eta buruzagi bihurtu zen. Gazte horien artean Pissarro, Renoir, Monet eta Cezanne zeuden. Pintore horien lan egiteko era modernoa zen eta akademiatik erabat urruntzen zen. ~~Bad~~ Dakigunez, akademiak errealitaterik gabeko pintura proposatzen zuen, lan praktikak klasean baino ez ziren egiten eta paletan kolore gutxi onartzen zituen.

Mugimendu horren benetako hasiera Nadar argazkilariaren tailerrean egindako lehen talde-erakusketarekin eman zen, Areto Nazionalako arte ofizialaren aurrean bere burujabetasuna azpimarratu nahian. 1874. urtean Louis Legros kazetariak, "Charivari" aldizkarian erakusketa horri buruzko kritika gogorak idazterakoan, "artista impresionistak" hitza erabili zuen lehenengo aldiz, batez ere Monet-en "Inpresio, eguzki atera berria" koadroari zegokionez (Impresión, sol naciente). Geroxeago beste idazlan bat agertu zen, Castagnary-k idatzitakoa, haiei izen hori betirako lotuta geratuz.

Impresionismoak askapen-jarrera berria ezarri zion arteari. Eta une horretan artistaren irudia guztiz aldatu zen: maisu eta akademiko izatetik buhame izatera aldatu zen. Talde impresionistak Pariseko Areto Nazionalak (Akademiaren aginpean zeudenak) eta pintura ofiziala errefusatu zituen.

Aldi berean, jarrera piktoriko hori burgesiaren alderdirik aurrerakoienaren agerpen bilakatu zen. Gauzak horrela, burgesiaren gustoko gaiak pintatu zituzten: paisaiak, natura, mendi-irteerak, dantzak, ibilerak, ohiturak, zelai-bazkariak eta abarrak. Batzuren

ustez, inpresionismoa burgesiaren artea izan zen, burgesiaren bizimoduak garbi islatu baitzituen.

Askotan, topiko ere bihurtu izan da talde hori, argiaren ikerketa zientifikoen ondorioak aztertzen saiatuz. Nahiz eta argiaren ikerketak inportanteak izan, bestelako kezkek kontutan hartu behar dira: ikusmen-inpresioa, denboraren eta unearen kontzeptuak, natura eta abar. Inpresionismoak inguru natural eta objektiborik ez dagoela baieztatu zuen, norberak bere subjektibotasunez antzeman dezakeen mundua baizik. Zentzu horretan mundua ulertzeko eta ikertzeko modu piktoriko berria ezarri zuten. Monet-en “Ninfeak” edo “Inpresioa, eguzki atera berria” koadroetan nabari daitezke ikerketa horiek. Laburtuz, pertzeptzio-erlazio berriak eta sakonagoak, ikusmen-sentzazio berriak, argiaren nagusitasuna, denboraren eta unearen presentzia eta gai naturalak islatu zituzten, norberari sentzazio subjektiboak sortuz.

Inpresionismoaren historia zortzigarren erakusketararte luzatu zen, Laffite kalean 1886.an antolatutako erakusketararte, hain zuzen ere, neoinpresionistekin bat egindako azken agerpena izan zena.

Kanpoan landutako pinturan, Monet-en eta beste inpresionista batzuren aurrerapenak edo berrikuntzak hurrengoak izan ziren: ikusmen-sakontasunaren interpretazioa, pintzelada zatiketa eta tonoen nahasketa optikoaren erabilera.

Laugarren erakusketan, “Des Indépendants” izendatutakoan, Renoirren lanek ikusleen arreta erakarri zuten, batez ere, Georges Charpentier familiaren mihise batek. Gizon horrek “La Vie Moderne” fundatu eta Pariseko arte-bizitza indartu zuen.

Bosgarren erakusketan Gauguin-ek Pisarrori esker hartu zuen parte, eta ordutik aurrera talde inpresionistarekin batera ibili zen. Urte horietan, Paul Durand-Ruel arte-merkatariak Ipar Amerikan Monet-en arrakasta lortzeko bidea prestatu zuen, benetako arrakasta 1905. ean eskuratuz.

1905. ean Paul Durand-Ruelek Londreseko Grafton Gallery-n talde inpresionistari buruzko erakusketa bat antolatu zuen, benetako arrakasta lortu zuena.

“Talde inpresionista” sortu eta behingoan, harengo kideek bide desberdinak jarraitu zituzten, bakoitzak bere norabidea propioari helduz.

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

OSCAR-CLAUDE MONET

- “Emakumeak lorategian” (1866)
- “La Grenouillère” (1869)
- “Inpresioa, eguzki atera berria” (1873)
- “Saint-Lazare geltokia” (1877)
- “Rouen-go katedralak” (1892-1893)
- “Nenufar-urmaela” (1899)
- “Vétheuil” (1901)

EDOUARD MANET

- “Olimpia” (1863)
- “Belarretan bazkaltzen” (1863)
- “Jeanne Duval” (1862)
- “Emile Zola” (1868)
- “Follies-Bergere-ko taberna” (1882)
- “Argenteuil” (1874)
- “Kafe-kontzertu batean abeslaria” (1880)

EDGAR DEGAS

- “Lisatzaileak” (1886)
- “Absenta” (1876)
- “Bainuaren ondoren. Emakumea lehortuz” (1890)
- “Jockey zaleak zaldi-kotxe baten ondoan” (1887)
- “Jockey-ak euriaren menpe” (1886)
- “Dantzaria lore-sortaz agur esanez” (1877)
- “Eskularruaren abeslaria” (1878)

CAMILLE PISARRO

- “Voisins herrira sarrera” (1872)
- “Neskatxoa makilarekin” (1881)
- “Rouen-go portua” (1896)

ALFRED SISLEY

- “La Machine-ko bidea Louveciennes-en” (1873)
- “Lainoa” (1874)
- “Port-Marly-n uholdeak” (1876)
- “Louveciennes-en elurra” (1878)

PIERRE-AUGUSTE RENOIR

- “Belarraren erdian aldapa” (1875)
- “Le Moulin de la Galette” (1876)

BERTHE MORISOT

- “Sehaska” (1872)

MARY CASSATT

- “Amak bere semea garbituz” (1880)
- “Susan balkoian txakurrarekin” (1883)
- “Umeak hondartzan” (1884)